...eta kitto!

920 zkia.
2015-11-20

# Eibarko ahotsak Easo Abesbatzan



EUKI
zerbitzu inmobiliarioak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA GESTIOA ADMINISTRAZIOA

30 urteko esperientziak
ematen duen
konfiantza

www.euki.com Tel: 943 200 358

# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA
# IZEN-ABIZENEKIN



## ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA





Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Inplantologia Masterreko Irakaslea.
**Lleidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
**Salamancako Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

## ETENGABEKO ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkartea**
**ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ**
**Galdetuiguzu!**

asociación de comerciantes de eibar
eibarko dendarien elkartea



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
**Galdetuiguzu!**











IRAZABAL
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**
**Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR -** Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KIRRIZK EGIN.- Haginek eta hezurrek ateratzen duten hotsa. Gaztelerazko *'crujir'* edo *'rechinar'*. *"Oso urduri eguan eta egun guztian hagiñak kirrizk egitten euki dittu".*
KIRRIZKA, KIRRIZKADA.- Haginekin egiten dan hotsa. Gaztelerazko *'crujido'*. *"Han izango da negarra eta hagiñen kirrizkadia".*

# ASTEAN ESANAK

"Herrialde ikuspuntuarekin jokatu beharra dugu, justizia eta giza-kohesioa lortze bidean, euskeraren normalizazioaren bidean. Argentinan euskera doan ikasi badezakete diru publikoarekin, zelan ez da posible izango gurean? Baliabide ekonomikorik ez izatea ezin da euskera ez ikasteko arrazoia izan"

(ZIGOR ETXEBURUA, GIPUZKOAKO DIPUTAZIOKO EUSKERA ZUZENDARIA)

"Ingresoak Garantizatzeko Errentaren inguruan izan diren gehiegikeriak hutsaren hurrengoak dira beste batzurekin alderatuta. Gipuzkoan eliteko kirolariak izan ditugu %1 baino gutxiago tributatzen hemen inolako jardunik egin gabe. Eta baita 81 merkataritza elkarte euren egoitza pisu `patera´ berean zutenak zerga onurak lortzearren"

(ALBERTO MOYANO, ZUTABEGILEA)

"Zergatik goraipatzen da hainbeste berdintasuna? Denoi gustatzen zaigun golosina modukoa da, baina ez du bestelako balorerik. Demokraziak inbidiari egiten dion omenaldia da. Modu horretan lortzen dute agintariek giza masifikazioa, erregimen totalitarioetan espreski kritikatzen duguna"

(JUAN MANUEL DE PRADA, IDAZLEA)

"Gurasoak, eta helduok orokorrean, oker jokatzen dugu gure seme-alabekin kirola egiten hasten diren unetik. Jokatzetik etorri, eta gure lehen galdera izaten da: zer egin duzu, irabazi ala galdu? Zergatik ez galdetu ondo pasatu duten? Emaitza eman behar digute derrigorrez?"

(ABRAHAM OLANO, TXIRRINDULARI-OHIA)

# eskutitzak

### UDAL HAUTESKUNDEAK

Berriz ere gainean ditugu hauteskundeak. Dagoeneko lau urte igaro dira?, esango du batek baino gehiagok. Niri, neuri, lau urteko epea motzegia iruditzen zait, baina horrela ezarrita dago eta ,aldatzen ez den bitartean, horrela izango da. Baina gaurkoan ez dut horretaz gehiago idatziko.

Udal bateko langilea izanik, ondo jabetzen naiz zinegotzi eta alkateen garrantziaz,: lan asko egin behar izaten dute eta makina bat erabaki hartu ere bai. Batzuetan asmatzen dute eta beste batzuetan ez, eta modu horretan herriko norabidea markatu eta baldintzatzen dute.

Baina, zer darabilgu kalean ahoz aho edota sare sozialetan? Oso ohikoa da gaizki esaka aritzea politikarien eta politikaren inguruan; lapurrak, ustelak... Egia esan, politikan dabilen, edo ibili diren, hainbaten ibilbidea lotsagarria da eta ez da izan inolaz ere eredugarria, baina gurean gehienek bokazioz eta borondate onenarekin dihardute politikan -gizartearen beste arloetan bezala-, gutxi batzuk soldatapean, gehienak borondatez.

Ohikoa da alkate edo zinegotziengana joatea kexak edota gaizki egindakoak salatzera, eta beharrezkoa eta aproposa da... Baina, zenbat aldiz joaten gara zoriontzera edota egindakoa eskertzera?

Orain, herrietan partidu eta koalizioei zerrendak osatzea tokatzen zaie eta, jakin dudanez, gero eta zailagoa egiten ari zaie. Sasoi batean prestigio-izena ematen zuen herri batean zinegotzi edo alkatea izateak, egun ordea...

Nire ikuspuntutik, okerreko bidetik goaz politika eta politikariekin. Berezitu behar ditugu sagar ederrak eta ustelak; kargu politikoen desprestigio kanpaina eten behar dugu. Jende prestatua behar dugu, lan egiteko gogoz eta herriaren alde egiteko asmoz daudenak: gazte, heldu edo nagusi (jubilatzen direnen esperientzia ere aprobetxatu beharra dugu). Asko dago jokoan, eta ostrukarena egiteak ez dizkigu arazoak konponduko.

Bitartean, zerrendatan joan behar zareten guztioi, animo eta eskerrik asko! Nahiko lan izango duzuela seguru nago.

**IÑAKI UGARTEBURU**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Javier Laskurain
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** ***8.050 ale.*** **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

# Toribio Etxebarria sarixen 25. edizïñua

**Martitzen goizian presentau eben Miguel de los Toyos alkatiak eta Marisa Arriola Bic Gipuzkoa Berrilaneko arduradunak** Toribio Etxebarria sarixen 25. edizïñua. Premixuetan banatzen dabenari begira inportantienen artian daguazen sarixak honezkero finkatuta daguazela azaldu eben ekitaldixan eta hori argi lagatzen daben datuak be emon zittuen: *"Sarixak sortu ziranetik hona, lehiaketara presentau dittuen 540 proiektutik gora balorau dittue, hórren artian sarixa jaso dabenetan 34'5 millioi euro inbertidu dira eta 695 lanpostu barri sortzia eragin dabe"*. Sarixak atal bi bereizten dittue: "Enpresa asmuak/proiektuak" izenekua (barrikuntza teknologikuan oiñarritutakuak ideiak eta proiektuak saritzeko) eta "Enpresa barrixa" dalakua (sortu barrixendako).

Betiko filosofixari jarraittuta, *"ekintzaille izateko gaitasuna, enpresen sormena eta garapena eta, batez be, barrikuntza teknologikua"* saritu nahi daben premixuetara aurkezteko azken eguna martxuaren 10a izango da. Horretarako eta informaziño gehixago jasotzeko www.toribioechevarria. com helbidera sartu leike.




*Marisa Arriola eta Miguel de los Toyos aurkezpenean.* SILBIA HERNANDEZ




# Euskal Bidea-ren aurkezpena

**Datorren martitzenian, 19.00etatik aurrera EH Bilduk "Euskal Bidea" goiburuko proposamen politikua** presentauko dau Eibarren, Zezenbide kalian daguan Alkartetxian. Aurkezpen ekitaldixan Marian Beitialarragotiak eta Oskar Matutek hartuko dabe parte eta, bestiak beste, Mikel Zubiomendi Garako kazetarixak egingo detsazen galdereri erantzungo dabela aurreratu dabe.



# Eibarko armak Frantziako telebistan

**Oin dala urte bi Frantziako telebisiñorako, Maryse Bergonzat-ek gure herrixan grabautako** Eibarko armeri buruzko erreportajia egin eban. "Les fusils d´Eibar" izenburukua atzera be ikusteko aukeria eukiko dau nahi dabenak, domekan 10.45etan France 3 Aquitaine, Languedoc-Rousillon eta Midi-Pyriénées Frantziako telebisiñuetan emongo dabe eta.

# Bixar itxiko dabe Beherapen Azokia

**Eguazten goizian Toribio Etxebarria kalian inaugurau eben** Beherapen Azokia azken txanpan sartu da: gaur 20.00ak arte egongo da zabalik eta bixar, barriz, bakarrik goizez zabalduko dabe, 10.00etatik 14.00etara. Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatutako ferixan ixa hogei denda parte hartzen dabiz, beti be oso eskintza berezixak eginda. Azokiak oso harrera ona dakala diñue: *"Beherapen haundixen aurrian bezeruak bikain erantzuten dau eta, aurreko edizïñuetan ikusi dogun moduan, inguruko herrixetatik be etortzen dira erostera"*.



# Errigoraren kanpaiña

**Nafarroako produktuak konsumitzaillieri zuzenian saltzeko helburua dakan Errigorak,** iaz egindakuaren bidetik aurten be urte guztirako olixua erosteko aukeria eskinduko dau: nahi dabenak Nafarroako oliba olixua (birjiña extra arrunta zein ekologikua, 5 litrok 20/28 euro balixo dabe) enkargau leike, gaurtik hasitta eta martxuaren 4ra arte. Eskaeria egitteko modu diferentiak dagoz: eibar@errigora.eus helbidera idatzitta; www.errigora.eus webgunian daguan formularixua beteta; edo eskuorrixa bete eta Beleko, Depor eta Kultu tabernetan, AEK euskaltegixan edo LAB sindikatuan entregauta.



# Merkataritza dinamizatzeko ekimena

**Astelehenian presentau eben udalak lagunduta SabadellGuipuzcoanok sustatu daben "Eibarren sinesten dugu" kanpaiñia**. Merkataritza dinamizatzeko asmua dakan ekimena. Bankuko zona-zuzendarixa dan Mikel Urkolak presentaziñuan azaldu ebanez, *"kanpaiñiari esker salmentak piztuta tokiko merkataritzari bultzadia emoten eta dinamizatzen lagundu nahi detsagu, herrixaren hazkunderako klabia dalako"*.



*"Eibarren sinesten dugu" kanpaiña astelehenian aurkeztu eben.* SILBIA HERNANDEZ

Kanpaiñarekin bat egin daben saltokixetan kutxa batzuk ipiñiko dittue (martxuaren 2tik 31ra arte) eta zeozer erosten dabenak (ez dago gitxieneko gasturik) saltoki horretan erabiltzeko 1.000 euroko sarixa irabazteko aukeria eukiko dau. Bezeruen artian banatuko daben premixua ez eze, kanpaiñian parte hartzen daben saltokixen artian be zozketia egingo dabe beste 1.000 euroko sarixa banatzeko. Zozketak apirillaren 15ian eta 20xan egingo dittue. Kanpaiñiaren harira, bestalde, "Sinesten dugu" irudixari jarraittuta Mariscalek diseiñautako poltsa ekologikuak (3.000 ale) banatuko dittue bankuak herrixan dittuan hiru buleguetan.

# Sorterriko sustarrak pasareletan

**Aurreko asteburuan Madrillen egin zan "MBFW-Madrid" moda pasarelan eibartar biren diseiñuak erakutsi** zittuen modeluak: Roberto Lopez Etxeberriak "Roots", 2015/16-reko udazken / negurako bilduma presentau eban zapatuan eta Jon Fiz, barriz, Eibar foball taldiaren kamisetia jantzitta urten zan pasarela gaiñera, bere kolekziñua erakutsi eta jarraixan. Fiz bere jaioterrixan inspirau ei da udazken-negurako bere aprés-ski kolekziñua prestatzeko eta keiñu horrekin foballian jokatu eban sasoia gogoratu nahi izan dau, taldiaren merituak errekonozitziarekin batera. Sorterrixaren baloriak desfilietaraiño eruateko ekimenak, gaiñera, ez ziran hor amaittu: aste honetan bertan, Manhattaneko Fashion Week-ian, Etxeberriak Santa Ageda koplen erritmora agurtu eban desfilia.





# Gure Esku Dago, barixakuero Deporren

**Gure Esku Dago-k ekaiñaren 21erako beste ekitaldi bat preparatzen dihardu:** "Erabagixa ehuntzen" goiburuari jarraittuta, egun horretan hiriburuetan hautesontzi erraldoiak osatu nahi dittue eta, hórrek osatzeko, bakotxaren atxikimendua idatzitta edo marraztuta eukiko daben oihalak alkarri josiko dira. Ekitaldixa preparatzeko, Eibarko Gure Esku Dago taldeko ordezkarixak aurrerantzian barixakuero batzen hasiko dira, 19.00etatik 20.00etara, eta nahi dabenak orduan eukiko dau oihal zatixa erosteko aukeria, baitta informaziño gehixago jasotzekua be.




## autuan

### HARRERA-REN ZOZKETIA

**Harrera alkartekuak egindako zozketan, hónetxek izan dira saritutako zenbakixak: lehelengua, mariskadia hartuko dabena, 3.118 izan da (ordezkua 3.337); eta Mahalako otarraren irabazlia, bigarren sarixa eruango dabena, 0942 (ordezkua 0665). Sarixa jasotzeko epia hillebetekua da (605724249 telefonora deittuta).**

### PAGATXAREN IKASTARUAK

**Andren alkartiak ikastaruak antolatu dittu: sukaldaritzaren ingurukua martxuaren 17, 24, 26 eta 31n izango da, Portalean; Interneten ingurukua, barriz, Untzagako jubilau etxian emongo dabe (mailla bi, duan). Izena emoteko 943206098 telefonora deittu. Bestalde, Pagatxakuak martxuaren 6xan egingo daben bazkarirako txartelak Unzaga hotelian jaso leikiazela emon nahi detse aditzera bazkidieri.**

### JUBILAUENDAKO BILLERIA

**Martitzenian 19.00etatik aurrera billera irekixa egingo dabe Untzagako jubilau etxian, Eibar "zaharren lagun" izendatzeko asmuarekin.**

### SUTONDO ZABALIK

**Atzotik negozio barrixa dago zabalik herrixan, Isasi kalian: Sutondo kafeterixa-okindegixa. Aurrerantzian, beraz, nahi dabenak han zeozer hartzeko zein eskintzen dittuen produktuak erosteko aukeria eukiko dau.**

# Aurten bai tokau jakula bustitzia…



Argazkiak: Leire Iturbe

# …koko-janzterako orduan



Play-backa



Kaldereruak



Pregoia



Sardiñaren entierrua




















EIBARTOUR
INSERSO

# Ixa 31 millioi herrixan gastatzeko



*Astelehen goizian udaletxian egindako udalbatzarrian 2015. urterako presupuestua onartu eben,* ***aldeko 11 boturekin*** *(PSE-EE alderdiko bederatzi eta PP-ko bi),* ***sei abstenziñorekin*** *(Eibarko EH Bildu) eta* ***kontrako lau boturekin*** *(EAJ). Aurtengo ekitaldirako onartutako aurrekontua ixa 31 millioi eurokua (30.800.383€) da eta, iazko aurrekontuarekin konparatuz gero, orokorrian 2 millioi inguru bajau bada be, jaitsiera hori Debabarreneko Mankomunidadiak hondakin-bilketa zerbitzuaren kudeaketa osua aurten bere gain hartziari zor jako neurri haundi batian. Holan, eta aldagai hori kontuan hartuta, aste honetan onartu daben aurrekontua aurreko ekitaldikua baiño %1'7 altuagua da.*

Sosiguz bada be, krisi ekonomikuarekin batera udal presupuestora aillegau zan jaitsieriari bueltia emoten hasi dirala emon eben aditzera astelehenian egindako plenuan eta, sozialistak egindako baloraziñuan, onartu barri dan aurrekontu proposamena idaztian *"lehentasuna udalak eskintzen dittuan zerbitzu guztien kalidadiari eustia"* izan dala azpimarratu eben. Plenora eruan aurretik, aurrekontu proposamenaren zirriborrua udaleko alderdi guztien eskuetan ibilli da, holan bakotxak bere ekarpenak egitteko aukeria eukitzeko. Azken astiotan dokumentuari egindako proposamenen inguruan negoziatzen jardun dabe sozialistak eta beste hiru alderdixak eta, horregaittik, udalbatza osatzen dabenak botaziñua egin baiño lehen bakotxaren botua zein izango zan bazakixen: PP alderdixak sozialistekin egonkortasunaren aldeko paktua dakanez, aldeko botua emongo ebala aurreratu eban lehelengotik; Eibarko EH Bilduk, barriz, presentau zittuan proposamenetako asko dokumentuan jasotzia lortu ebanez, abstenitu egingo zala adierazi eban; eta EAJ-k, barriz, sozialisteri *"negoziatzeko borondate eza"* egotzita, osotasunari zuzenketia presentau eta botaziñuan kontrako bozka emongo ebala be gauza jakiña zan.

***2015eko Udal Aurrekontua 30.800.383,97 € Iazkoa baino %1,7 gehiago***
***(kopuruan 2 millioi gitxiago agertzen dau, hondakin-bilketa zerbitzuaren kudeaketa osua Debabarreneko Mankomunidadiak hartu dabelako)***

---



**FELIX BERGARA ZURUTUZA** *(apaiza)*

*II. urteurrena (2013-II-22)*

**MEZA** *ospatuko dugu datorren domekan –2015/II/22–*
*Azitaingo Jasokunde Parrokian, goizeko 11.00etan*

**Esker beroenak elizkizunera joango zareten guztioi.**
*HAREN IDAZKARIA (Mª CARMEN FERNANDEZ MEMBRIBE), SENIDEAK, JASOKUNDEKO ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK.*



Gauzak holan, udalak urte osorako eukiko daben presupuestua onartzeko plenua sorpresa barik egin zan eta alderdixetako bozeramaillien arteko eztabaida be ez zan larregi luzatu.

Igor Aldalur Bilduko bozeramaillia pozik agertu zan dokumentua lantzeko izandako billeretan sozialistekin lortutako adostasun mailla dala eta. Izan be, aurrekontuan eurak aurkeztutako 27 proposamenetatik 21 jaso dittue eta: *"Onartutako zuzenketen artian, batzuk iaz onartu zeskuezen hainbaten jarraipena dira eta barrixen artian, barriz, batez be lau aittatu nahi dittugu: herri barruko bidegorrixari lotutakua, tokiko garapen ekonomikorako planaren ingurukua, erabilli barik daguazen etxiak alokairu merkatura etaratzeko proiektuari buruzkua eta Euskeriaren Plan Estrategikuari lotutakua"*. Laburbilduta, EH Bilduren eritziz *"2015eko aurrekontu proiektua asko hobetu da koaliziñuak proposau dittuan 330.000 euroko balixua daken 17 proiektuak jasotziagaittik"*.

Oso bestelakua da jeltzaliak aurrekontuaren inguruan egitten daben irakorketia eta, asteleheneko plenuan, Eva Juezek proposamenari osoko zuzenketia aurkezteko erabagixa eta, ondorioz, bere alderdixak kontrako botua emotia arrazoitu eban: *"Proposamenari etorkizunerako proiektua falta jakola pentsatzen dogu. Eibarko gaztien langabezixa tasak %38-xa gainditu dau, larrialdi egoerian gagoz eta aurrekontu proposamenak ez detse erantzuten herrixan daguazen premiñeri. Sozialistekin aurrekontuari buruz negoziatzera jarri giñanian, dokumentua hobetzeko asmuarekin 25 proposamen presentau genduazen: bestiak beste, autoenplegua sustatzeko partida sortzia proposatu genduan, baiña horretarako bakarrik 30.000 euro erabiltzeko prest eguazela erantzun zeskuenian, ixa-ixa adarra jotzen ari zirala begittandu jakun"*.

Eta PP alderdiko Carmen Larrañagaren berbetan, *"horretara ipiñitta, seguru gutariko bakotxak aurrekontu desberdiña osatuko leukiala, baiña biharrian jardun ahal izateko garrantzitsuena aurrekontuak ahalik eta babes haundixenarekin aurrera egittia da"*.

## INBERSIÑO NAGUSIÑAK

**1.805.000 euro herri barruko obretarako**

**757.098 euro Txomon parkia konpontzeko**

**585.000 euro akzesibilidadian**

**504.000 euro auzuetako billeretan eskatutakua egitteko**

**500.000 euro Errebalgo proiektua abiarazteko**

**200.000 euro fatxada eta igogailluak barritzen laguntzeko**

**133.200 euro J.A. Mogelen errehabiltaziñorako**



Trenbidia estali eta pasiatzeko egokitzeko biharretarako 400.000 euroko partida bat jaso dabe aurrekontuetan.



Txomoko parkia konpontzeko 757.000 euro pasatxo erabilliko dira.



Herri barruko akzesibilidadia hobetzeko 585.000 euro dagoz.



# MANOLO MAGRO ALVAREZ

**4. URTEURRENA** *(2011-II-26)*

*GURE BIHOTZETAN*
*bizirik jarraitzen duzu*

**ETXEKOAK**



# "Ciutat Morta" dokumentalaren emanaldia gaztetxean




*Dokumentalak Katalunian hautsak harrotzea lortu du, auzia berriz ireki dute-eta.*

**Eibarko Gazte Asanbladak antolatuta, domekan 18.00-etatik aurrera "Ciutat Morta" dokumentala emango dute gaztetxean.** Xavier Artigasek eta Xapo Ortegak 2013an egindako dokumentalak "4F auzia" izenekoaren berri ematen du: *"2006ko otsailaren 4an udaltzainak Bartzelonako etxe okupatu batera joan eta, euretako bat larriki zaurituta gertatu eta gero, bederatzi lagun atxilotu zituzten. Atxilotutako lagun horietako lauren kasua azaltzen du dokumentalak eta, besteak beste, atxiloketa horiek arbitrarioak izan zirela agerian lagatzen du lanak".* Atxiloketa horiek gerora ondorio larriak izan zituzten, atxilotuetako batek, Patricia Herasek 2011n bere burua hil egin zuen eta.

Poliziaren inpunitatea eta prozesu judizialean izandako irregulartasunak salatzen ditu dokumentalak eta aurtengo urtarrilean Katalunian hautsak harrotzea eragin zuen lanak: zentsuratzen ahalegindu ziren, baina hilabete luzeetako presioaren ondoren TV3 telebistak lana emititzea lortu zuen. Hala ere, Bartzelonako lehen auzialdiko epaitegiak bost minutu zentsuratu zituen. Horrekin batera, urtarrilaren 19an dokumentala "4F auzia" berriz zabaltzeko nahikoa ez zela esan zuen fiskalak, baina handik egun batzuetara, urtarrilaren 23an auzia berriz irekitzea onartu zuen Kataluniako Parlamentuak.



# Lauroba eta Oso Fan, Belekon zuzenean

**Gaur 23.30etatik aurrera bi bakarlariren kontzertua hartuko du Beleko tabernak:** batetik, musikan ibilbide luzea duen Lauroba taldeko Ikerrek bakarkako bere lehen lana egingo du, eta Harkaitz Canoren hitzekin sortutako abestiak emango ditu ezagutzera. Jarraian, Euskadi Gaztea irratian hamabostean behin abestiak azaltzen dituen Giorgio Bassmatti donostiarrak "Oso Fan" euskerazko bere proiektua aurkeztuko du. Sarrera doan izango da.





# Swing&blues gaua Ez Dok-en

**Zapatuan, 23.30etatik aurrera "swing, blues eta old time country"** musikari eskainitako gaua hartuko du Ez Dok tabernak, "Ghost Number & His Tipsy Gypsies" taldeak emango duen kontzertuari esker. Betiko moduan sarrera doan izango da.

Isasi, 31
943 207 737
Etorri! Zure etxian egongo zara!!
Eibar-Athletic partidurako 2 SARREREN ZOZKETAN sartuko zara
VS
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTONDO


Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK
ume eta gazte Kopina moda
kopinamoda
San Agustin, 3
943 204 181


*Hainbeste bide zabaldu zituen Peli Egaña eibartarrak, Easo Abesbatzako presidentea zenean animatuta, hasi zen Javier Laskurain abesten aurten 75 urte beteko dituen Donostiako koro horretan. Hala ere, gonbitea jaso aurretik Gustavo eta Alex semeak bidali zituen, hurrengo astean bera ere abesbatzan sartzeko. Bestalde, bost hilabete dira Juan -Gustavoren semea- zortzi urterekin Easoko partaide egin dela. Hiru belaunaldi, beraz, koro berean. Laskuraindarrek, gainera, urte berezia dihardute ospatzen abesbatzarekin, Eibar FT-k bezala diamantezko ezteiak ospatuko baitituzte. Donostiako egun nagusian hiriko bandera jasotzean bizi zituzten une hunkigarriak jarraipena izango dute martxoaren 14an Bartzelonaren aurka Ipuruan jokatu beharreko partiduaren aurretik Eibar FT-ren himnoa interpretatzerakoan.*




*Javier, Gustavo, Juan eta Alexander: hiru belaunaldi Easo Abesbatzan.*

# Laskuraindarrak: Eibarko ahotsen aztarna hiriburuan

**Easo Abesbatzan abestea Javierrentzat Milango Scalan abestea bezalakoa zen. Abestea, kirola egitea moduan, estudiatzeko ere lagungarri dela pentsatzen du familiako beteranoenak.** Horregatik, bere semeek eta bilobak haren bideari jarraitu diote eta bikain dihardute ohiko jardunak eta abestea tartekatzen. Gustavo semeak dioskun moduan, *"pare bat entsegu egiten ditugu astero, astelehenetan eta eguaztenetan, pare bat ordukoak"*. Aurtengoa urte berezia da eurentzat, Easok 75 urte betetzen dituelako, eta urteroko 20-25 emanaldiak motz geratuko dira. Dagoeneko, bizi izan dituzte une bereziak Donostiako danborradaren bueltan, eta hemendik hiru astera Eibarren izango dira, Eibar FT-rekin kolaboratzen. Hor izango dituzte Donostiako Hamabostaldiko opera biak ere: *"Antzeztua bat eta kontzertuan bestea"*. Izan ere, urteroko kontua da eurentzat Hamabostaldian opera edo kontzertua aurkeztea. *"Urtero abesten dugunen artean, Donibane Lohizunen udaberri bueltan Anaiki Abesbatzarekin egiten ditugunak dugu"*.

Gustavok operetan gozatzen du gehien, *"ahalegin haundiagoa eskatzen badu ere; erronka ere tamaina horretakoa baita"*. Ondo gordeta ditu orain dela bi urte gure herriko San Andres parrokian abestu zuten eguna. Eta baita, bakarlari gisa, Hamabostaldian antzeztutako Valeri Georgiev-en pieza ere. Easo Abesbatza asko irten da kanpora: *"Ipar Osetian izan ginen orain dela hiru bat urte, euskal kantak eskaintzen. Parisen izan gara 4-5 aldiz, San Petersburgon ere bai..."*. Hizkuntza askotan abestea egokitzen zaie eta, denetarako prestatu arren, batzuk zailtasun gehiago izaten dituzte: *"Alemaniera edo errusiera ez dira frantsesa edo italiera bezain melodikoak, azken hauek errazagoak egiten zaizkigu"*. Hala ere, euskera eta gaztelera dira nagusi euren kontzertuetan: *"Erdi eta erdi. Jendea oso euskalduna da, baina entseguak gazteleraz egiten ditugu, zuzendaria hobeto moldatzen delako"*. Errusiar abesbatzek folklore kantetan ahots landuenak erakusten dituztela uste du Gustavok, *"baxu aldetikan batez ere"*. Onartzen du gizonezko abesbatzak ez direla arruntenak, mistoak nagusitzen direlako arlo horretan. Eurenean, baina, hor izan zen sorburua: *"45 lagun gaude taldean: gazteenak 14-15 urte izango ditu eta nagusiena aita dugu, 70ekin; azken boladan beste hamar bat gazte etorri dira Escolaniatik"*. Easo Abesbatzak, dena dela, 320 koralista ditu, bederatzi taldetan eta hamaika formatutan banatuta; eta 1.100 bazkide ditu.

## Abesten Eibarren hasitakoak

Javier baritonoa da, Alex tenorea eta Gustavo baxua. Baina 1993ko opor haietan Peli Egañarekin topo egin aurretik, Laskuraindarrek lehen urratsak emanak zituzten gure herrian, Donostiara bizitzera joan aurretik: *"Aitak aspalditik abesten du eta Eibarren Karmeldarren eta San Andreseko koroetan ibili zen. Alex Sostoa Txikin egon zen, Mª Karmen Etxeberriarekin. Solfeoa ikasitakoak ginen, Bidebarrietako Arraterekin"*. Gaur egun Javierrek du lotura gehien Eibarrekin: *"Aita hilabetero joaten da soziedadekoekin otordua egitera. Elur egun hauetan anaiak ondo aprobetxatu du Arratera igotzeko eta ni ere hor izan nintzen Ipuruan Eibarrek 1. mailara igotzea lortu zuenean"*, dio Gustavo gure elkarrizketatuak. Belaunaldi erreleboa ere ziurtatuta du hiriburuko abesbatzak Juan familiako gazteenarekin, irailean hasi zenetik: *"Bere erabakia izan zen, niri ezer esan gabe"*, diosku harro Gustavok. Martxoaren 14an Eibarko Himnoari bizia emango diote Ipuruan.

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

**BALATZ C.B.**
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

**trinmer**
Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

## AROTZAK

**SUA**
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
*Iparragirre Anaiak*
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

**ulmar S.L.**
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
*EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)*

## ELEKTRIZITATEA

**ibarra**
Ego-Gain, 9 ac.
ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
raimonibarra@gmail.com
677 51 24 62
943 20 06 97

**electricidad iparelek s.l.**
943 530 356
688 674 242
669 934 964
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com

**THELECER**
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
*24 orduko urgentziak*
Juan Gisasola, 4
943 257 869
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** Inspeccion Tecnica de Edificios
**E.I.T.** Eraikinen Ikuskapen Teknikoa
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A

# Informazio gehiagorako

943 20 67 76

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**
Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

## IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
**irazabal**
Jose Maria Irazabal, S.L.
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia
**Jardines Iturgintza**
Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929
Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

K21
**MUGICA**
ITURGINTZA
Aire egokitua, iturgintza,
Gas instalazioa, kalefakzioa,
petrolio-produktuak, bainuen
erreformak eta abar...
**HANSGROHE** kanilen banatzailea
Zoru erradiatzailea
Eguzki-energia
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
☎ eta faxa: 943 203 903
ERAKUSKETA
Arikitxaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES **AIXA**
José Luis Iriondo
Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

**baglietto**
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

**PINTURAS ARRATE, S.L.**
- Nexa Autocolor
- Pintura industriala
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

**MALVAR PINTURAS**
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**
PINTURA OROKORREAN
BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

## Eibartarrak Euskal Herriko igerilari onenen mailan



Urbateko igerilariek euren markak hobetu zituzten eta Espainiako txapelketarako hainbat minima eskuratu Iruñean.

**Iruñean aurreko asteburuan jokatutako Euskal Herriko senior mailako txapelketetan,** hainbat domina lortu zituzten Eibarko igerilariek: Urbat taldeari dagokionez, Nekane Tejedorrek txapela jantzi zuen 200 bularrean (100ekoan bigarrena izan zen eta hirugarrena 50ekoan, hau da, podiumera igo zen parte hartutako proba guztietan); Ander Izagirrek zilarrezko domina eskuratu zuen 200 libretan; eta Eibarko taldearekin entrenatzen duen Ion Mujika bergararrak lehen postua eskuratu zuen 50 eta 100 bizkarreko probetan. Bestalde, Bidasoa taldearekin lehiatu zuen Markel Alberdi eibartarrak txapela jantzi zuen 50 eta 100 libretan.

Irunen jokatutako infantil mailako txapelketa horretan, Maite Barruetabeñak, txapelketa bikaina burututa, txapela jantzi zuen 100 eta 200 bizkarrean eta bigarrena izan zen 100 libretan (hiruretan ere, Espainiako txapelketarako minimoa lortuta); Iara Urkirik brontzezko hiru domina zintzilikatu zituen lepoan, 50eko libretan Espainiako txapelketarako minimoa bereganatuta; eta Kattalin Izagirrek beste brontzezko bi eskuratu zituen.




Andoni Mayo eibartarra Sopelako proban.

## Delteco Eibar Triatloi Taldeak denboraldia hasi du Sopelan

**Aurreko zapatuan Bizkaiko kostaldeko herri horretan jokatutako proban,** Eibarko taldeak lau ordezkari izan zituen eta, ohikoa bihurtu denez, Pello Osoro eibartarra onena izan zen 23 urtetik behekoen artean (4.a izan zen sailkapen orokorrean). Gure herritik joandako beste hirurek ere lan ona egin zuten: Andoni Mayo 50.a izan zen, Roberto Gartzia 54.a eta Juanjo Romero 102.a.

## Elurragatik atzeratutako Ermuko Duatloia jokatuko da bihar

**Elurra zela-eta bertan behera geldititako lasterketak bihar izango du bigarren hitzordua.** Proba sprint distantziakoa da (5 kilometro antxintxiketan, 20 bizikleta gainean eta beste 2,5 antxintxiketan berriro) eta Bizkaiko txapela izango da hor jokoan. Euskal Herriko duatloi zirkuitorako lehen proba puntuagarria 16.00etan hasiko da eta irteera, helmuga eta boxeak Cardenal Orbe plazan kokatuko dira.




## Asteburu erraza waterpolistentzat

**Urbat-Urkotronik senior taldeak aldea dagoela erakutsi zuen Easoren aurkako partiduan** eta 19-3 nagusitu zen. Nagusitasun bera erakutsi zuten jubenil eta infantil mailetako taldeek ere: jubenilek 29-4 egurtu zuten Easo eta infantilek, euren aldetik, asteburuan jokatutako partidu biak irabazi zituzten: 1-18 WP9802 taldeari eta 19-9 Larrainari.

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

# Txapelketako partidua domekan Astelenan

**Profesionaletako 1. mailako binakako txapelketak hitzordua du etzirako Astelenan.** Finalerdietara sailkatzeko ia aukerarik ez duten bikote bi izango dira nor baino nor jaialdiko partidu nagusian: Xala eta Merino II.a Urrutikoetxea eta Ladis Galarzaren aurka. Aurretik Aritz Lasak eta Irustak osatutako bikoteak Jaunarenak eta Merinok ostautakoa izango dute aurrean. Amaitzeko, Rico IV.a-Larunbe eta Gorka-Larrinaga bikoteen arteko lehia ikusi ahal izango da, promozioko binakako txapelketaren barruan.



*Merino II.a sailkatzeko azken aukeretakoaren aurrean izango da domekan Astelenan.*

# Concepto Egile liderrarengandik gertuago

**Ibararteri 5-2 irabazita, Concepto Egilek liderra gertuago du orain, Pinsequek galdu egin baitzuen** etxean Ebrosalarekin. Orain liderra sei puntura dute Debabarrenekoek, Colo Colo laura eta Zierbena hirura; liderraren kantxan irabazi duen Ebrosala atzetik dator, Concepto Egile baino hiru puntu gutxiagorekin. Asteburu honetan Debabarrenekoak Irurtzunen jokatuko dute, Xota taldearen filialaren aurka: horko hiru puntuak behar dituzte txapelaren bila jarraitzeko.

ESCUDERIA EIBAR

# Escuderia Eibarrek autoak aurkeztuko ditu bihar

**Gure herriko automobilismo taldeko hainbat kide izango dira bihar arratsaldean Untzagan** hastear dagoen denboraldiaren aurkezpen ekitaldian. Aurten ez da Eibarko Rallysprint ediziorik izango; baina, hala ere, Escuderia Eibarko gidariak hainbat probatan hartuko dute parte arratsaldeko 18.00etatik aurrera erakutsiko dituzten modeloekin.

## motzean

### ESKUBALOIA

**Somos Eibar Eskubaloiak denboraldiko bigarren porrota jaso zuen Iruñean (27-24) eta, lider jarraitzen badu ere, orain puntu bakarrera du Anaitasuna bigarren sailkatua. Nafarrek Asobaleko taldean sarri ibilitako jokalariak erabili zituzten baina, hala ere, aurpegia eman zuten.**



### FOBALLA

**Eibar Foball Taldeak neurketa zaila izango du domekan, 19.00etan, Villarrealen zelaian. Elx-ekin Ipuruan galdu eta gero, atzetik dituenekiko tartea murrizten doakie eibartarrei eta jarraian galdutako lau partiduei amaiera emateko gertu daude. Taldearen bajen artean Manu del Moral aurrelaria dago eta aste honetan aurpegia babesteko azken belaunaldiko maskara jaso du Poliklinika Gipuzkoan.**


Funeraria·Ehorztetxe Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi


*Gure oroitzapenak*
*Itsas galeretako oholak bezala*
*Ez dira*
*Itsas hondoan ezabatzen*
*Ez dute*
*Inongo porturik helburu.*
*Gure oroitzapenak*
*Itsas galeretako oholak bezala*
*Ur gainean doaz kulunka*
*Uhainek eraginak*
*Ezabatu ezin*
*Eta xederik gabe.*



*Mikel Laboaren* **"GURE OROITZAPENAK"**

**JOXEAN gure lagunari**

**1. urteurrena** *(2014-II-25)*

**JAVI ETA IDOIA**



## MARTA IRUSTA *(yoga irakaslea)*

# "Yogak bakoitzaren gorputza guztiz errespetatzen du"

*Yoga nolakoa den jakiteko gogoak bultzatuta, klaseetara joaten hasi zen eta gaur egun bera dabil beste batzuei yoga erakusten. Arrate Kultur Elkartearen ikastaro eskaintzaren barruan, astean birritan Kultuko 1. solairuan yoga klaseak ematen ditu Marta Irustak eta horietako batean azaldu dizkigu yogaren inguruko gorabeherak.*

***- Noiz eta nola hasi zinen yoga egiten?***

Badira hamar urte baino gehiago Eibarko yoga eskolan, gaur egun Txaltxa Zelaian dagoen Sanatha Dharman hasi nintzela. Beste lagun batzukin batera yoga klaseetarako izena eman nuen, probatzeagatik, eta asko gustatzen zitzaidala ikusi nuenez, aurrera jarraitu nuen, gero eta gehiago ikasten. Horrela, irakasle izateko Zestoan urte biko ikastaroa egitera animatu eta klaseak ematen hasi nintzen eta orain gehiago ikasteko beste kurtso bat egiten nabil. Izan ere, yoga bizitza osorako bidea izanik, beti dago zer ikasi.

***- Norentzat da aproposa yoga?***

Edozeinentzat da egokia. Nahi duen jende guztiak egin dezake, berdin dio adinak, gorputzaren elastikotasunak… Izan ere, yogak bakoitzaren gorputza den moduan errespetatzen du guztiz. Adibidez, asana bat egitean ez dago horretarako modu bakarra, ezin daiteke esan ondo edo txarto eginda dagoen, bakoitzak bere erara egiten du eta denak daude ondo eginda. Bizitzako arlo askotan dagoen konpetibitate horrek ez dauka tokirik, mugak bakoitzak bere buruari ipintzen dizkio.

***- Beste ariketa modu batzuekin alderatuz gero, beraz, badago ezberdintasunik...***

